

Anderson eta Bosmans irabazle Igorreko Ziklo-krosean

15. orrialdea

Euskaldunon Etxea Artaunen

Euskaldunon Etxea izeneko proiektu etnografiko bat zabalduko dabe urte hasieran Cristina eta Elena Amezaga soziologoak. Arratia eta Bilboko etxeak eta gizarteak izandako aldaketa ikusi ahal izango da bertan. XX. mende hasierako gizarte tradizionalan zein modernidadean murgildutako aukera egongo da Artaun auzuneko Antzasti baserrian. 16. orrialdea



Jose Martin Bustinza "Tubi" txapeldun hamabigarrenez lasto botaten

15. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

286

2017ko abenduaren 18a
hamabostekaria
www.begitu.org



Gabonak ekintzaz beteta

Urteko atzen kultura hamabostaldia da Gabonetakoa eta Arratia, Ubide eta Zeberioko Udala eta alkarteak hainbat ekintza prestatu ditue. Herri guztietan beteko da Olentzeroren tradizioa. Horrez gai-

nera, beste jarduera batzuk be egongo dira: antzerkia, bertsolariak, kontzertuak, urteko azken eguneko lasterketak, eta abar. Familian zein lagunakaz edade guztietako jentek disfrutau dagien. 10., 12. eta 13. orrialdeak

Euskerea lan mundura

Errota Fundazioak, 2018an eta 2019an, lan munduan euskerea txertatzeko ekintza egitasmoa bideratuko dau, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzagaz alkarlanean, eta eskualdeko udalen babesagaz. Zemendiaren 30ean egin eben proiektuaren aurkezpena. Egitasmoak "Lan munduan euskeraz biziteko 12 arrazoi" izena dauka. 5. orrialdea



ARRATIA

Irakaskuntzako grebak %90 inguruko segmentua euki dau

Zemendiaren 30ean eta abenduaren 12an, ELA, LAB eta Steilas sindikatuak deituta, Arratiako irakaskuntza publikoko irakasleak greba egin eben euren lan baldintzak hobetu eta hezkuntzaren kalitatea hobetuteko inbersinoak eskatzeko.

Zemendiaren 30ean, batz besteko jarraipena %86,6koa izan zan gure eremuko ikastetxeetan, eta abenduaren 12an %91ra heldu zan.

Dima, Igorre eta Zeberioko eskoletan irakasle guztiak egin eben greba egun bietan, eta beste ikastetxeetan be, %75tik gorako jarraipena izan eban grebak. 8. orrialdea

ARRATIA

Torontilek irabazi dau Enpresa-Ideien Lehiaketeta

Emma Aguilar arteaztarrak eta Maitane Iruarizaga igorretarrak irabazi dabe Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) antolatutako Arratiako Enpresa-Ideien Lehiaketeta Torontile proiektuagaz. Plazapp Arratia, baserriko produktuak saltzeako aplikazioak eta Arratia martxan, ekin-tzailtzea bultzatutako proiektuak jaso dabez bigarren eta hirugarren sariak, hurrengo hurrengo. 7. orrialdea

GORBEIA BIDAIK

Gabonetan onartzen dodaz oporrak opari lez!

Elخالde, 2 · 48140 Igorre · 94 631 52 36
info@gorbeibidaiak.com · www.gorbeibidaiak.com

DIMA

Plazea berrantolatze bigarren bersinoa aurkeztu dabe

Jentek egindako iradokizunak jasoten dauan plazea berrantolatze proiektuaren bigarren bersinoa aurkeztu eben Ele Arkitekturako arkitektoak abenduaren 13an. Aurreko proiektutik egindako aldaketarik garrantzitsuena, plazatik autoen zirkulazioa norabide bietakoa izateko proposamena da. Honeri be iradokizunak egiteko epea zabalik dago urtailaren 15era arte. 8. orrialdea

Zorionak eta urte barri on!

www.ibonebarrenetxea.com

f i Tlf 622517303

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Haxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak: begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Loditu

Argazkia: Jabí Artaraz.



Persona edo animalia bizidunen gorputzak pisuan irabazi ezker, loditu dirala esaten dogu (loditu, agoskatuta). Sukaldaritzan be erabilten da berba hau: saltsak su bizian ipinita, okela, ortuari, arrain edo karakolena kasu, loditu egiten dira. Eta, gitxiago ezetu arren, eguraldiagaz be esaten da, edurtza handietan edurra lodituten dala dinoskue adibide honetan: "Gaur, Arrabako landan edurrak lodituko joan/nan!"; gatzelaniaz, "cuajar" da.

ERETXIA

Eskertuz ospatu

Gabonak heltzeaz dagoz eta mundu guztia pentsetan dabil zelan, non eta batez be, nogaz ospatuko dauzan jaiok. Jentea batzeako sasoia da haxe, danok batera egoteko, alkar ikusteko eta alkarregaz jaki goxoak jateko eta txanpana edateko. Telebistea biztu eta familia handi eta guapoak agertzen dira, zahar eta gazte askogaz, barre- txoak arpegian. Kuadrillak batzeako sasoia be bada, afari onen sasoia barriz be, eta ez dago ez agertzeko atxakiarik.

Baina gauzak aldatu egin dira azken urteotan, eta gero eta jente gehiago ezin da etxera itzuli, ezta Gabonetan be. Krisia zala-eta lanera kanpora joan ziralako, edo oso urrun dagoan herrialde baten aukera on bat izan dabelako, asko eta asko dagoz kanpoan, itzuli ezinda. Nik, adibidez, lehengusina bat Vietnamen daukat ingeles eskolak emoten, eta lagun- nik zaharrena Ingalaterran, erizain lanetan.

Beste motatako ausentziak be asko igarten dira egun honeetan: falta diran personak, urtean zehar betiko joan diralako. Sasoi txarra da galera handiak izan dituen personentzat, edo edozein kausarengaitik oso bakarrik dagozanentzat. Familia eta lagunak atzean itxi dituen errefujiaduentzat, adibidez. Edo hilero familiari dirua bialtzen deusan etorkinarentzat, senideak besarkatu ezin dauan horrentzat.

Badago be Gabonetako beste klasiko bat, mila iragarkiren protagonista: opariak eta opariak trukatzeko momentua. "Egizu zure umea munduko mutiko edo neskatorik zoriontsuena jostailu honegaz", "erakutsi gurasoai maite dozuzala perfume garesti honegaz" eta barriz be, hori egin ezin daben persona asko dagoz. Pentsau langabezia dagozan personengan, edo lan ezin pre- karioagoagaz bizimodua aurrera ateratzen saiatzen diran gazteen- gan.



CLARA LUJA AZPIRI

Kazetaria

Iragarkietako familia tradizio- nal idealak egon badagoz, baina egun berezi honeetan familia edo lagunakazu batu ezin dan persona asko be badago, oparirik egin ezinda dabizanak, eta oro har ospakizun aldia ea noz amai- tuko dan etxoten dagozanak.

Proposatzen dodana eurentzat eta guztiontzat zera da: aldatu daigun Gabonak ospatzeko daukagun modua. Mundu guztia batzea oso polita da, eta egin be- har da aukerea izan ezker, baina beharbada fokua aldatu leikegu mundu guztia batze honetatik eta opariak jaso eta emotetik, eta da- nok egin leikegun zerbaitengaitik aldatu. Hemen idea bat: ame- rikarren ospakizun bat maileguan hartu eta eskerrak emon; hau da, gure Gabonetako *Thanksgiving* partikularra izan.

Eskerrak emon daigun dauka- gunagaitik: geratzen jakuzan familia eta lagunak, hemen edo munduko beste puntan dagoza- nak. Eskerrak emon daigun baita be ziurtzat jotzen doguzan gauza guzti horrengaitik: goizeko ka- feagaitik, gure paisajeko berdea- gaitik. Erreza da aitzutea zenbat gauza on daukaguzan gure on- doan beharrez estresauta ga- bizanean, edo buruan gauza lar doguzanean.

Eskerrak emon daikegu be 2017 urtean bizi izan doguna- gaitik: urtea amaitzeaz dogu eta balantzea egiteko momentua da. Emon daiguzan eskerrak espe- rientzia on guztiengaitik, ikasi do- gunagaitik eta emon doguzan au- rrerapausuengaitik, urtearen alde on guztiak batu eta geugaz eroan ahal izateko 2018ra. Ostera, oso urte txarra izan badogu, eskerrak emon daigun azkenik amaitzeaz dagoalako.

Danok daukagu eskerrak emo- teko errazoren bat: beste he- rrialde baten dagoanak kultura desbardin bat ezetuteko aukerea izateagaitik eskerrak emon leike, kanpoan dagoan errefujiaduak gerratik urrun dagoalako, eta ikas- le eta irakasleak oporrak ditue- lako. Ez da dirurik behar eskerrak emoteko, eta munduko punta guztietatik egin leiteke.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

LUMATUTEN



RUTH LINAZA

Eskerrik asko danoi!

Oingo honetan, ez nator nire eretxi apala emoten edo inor lumatuteko asmoagaz. Eskerrak emoteko asmotan nator.

Horretarako ausarta eta lotsabakotxia izan be banaz! Parkatuko deustazue. Askok daukat eskertuteko batez be egiten dodan kirola egiteko aurkitzen dodan babesagaitik. Persona horreek barik, ez nintzateke nazana izango eta.

Baina gertatu jatan gauza ederenetako bat, pasau dan kursosoko eskola agenda baten neure buruaren argazkia ikusi nebanean sentidu nebana izan zan. Kirolari handiz inguratuta agertzen nintzan eta euren ondoan txiki ikusten neban neure burua.

Hori holan izateko, baten bateri otu jakon nire izena. Bertan egoteko merezimentuak ei neukazan eta horregaitik adierazo gura dot eurenaganako esker ona. Bihotzbihotzez eskertzen deustuet.

Nor nazan, nora heldu nazan, zelan heldu nazan... eta agenda

horretan agertzen dan horrek adierazoten dauanak, andra kirolari euskalduna izatea da, zailtasun guztiak gaindituz. Eta agenda horretan aita-men gisa egotea, batzuentzat asko ez izan arren, asko da niretzat.

Egunero saiatzen naz marka horren eredu izaten nahiz eta gura bes-tetan lortu ez. Ezagutzen nabena, jakin badakie, etenbarik saiatzen diran horreetakoa nazana. Bizitzan, sokatiran edo dana dalakoan.

Eta euskeraz bizitea be, saiatuz lortzean da. Ekinez. Ibiliz. Erabiliz. Harrokeria barik euskaldun izan eta lotsa barik berba egin behar dogulako euskaldunok.

Egunero ahalegin handiz euskeraz ekiten ahalegintzen naz. Lantaldean zein bakarka, baina beti ekinean.

Egunerokoak eta euskereak be horixe behar dau-eta, ekinean aritzea, etenbakoa izatea, jardun osoan aritzea. Egunero egin behar dalako lana.

Sokatiran asko ibilita be, sarritan ez da garaipenik lortzean baina euskereagaz legez, ibilian lortzean da irabaztea.

Etxeokak, lagunak, taldekideak, herritarrak, auzokideak, lankideak, ezagunak... (ez dot inor aitzu gura eta inor aitatu barik geratzen bada, alde zuriatik parkamena eskatu gura dot) esan barik beti aurrera jarraitzeko hauspoa izan zinien eta zarie. Baina oingo honetan, berba barik itxi nozue... Euskerearen erabilerearengaitik irudi. Marka. Elementuak. Holangorik!

Eskerrik asko bene-benetan honen parte izateko aukerea emon deustazueno. Zuoat be harro!

Hartu euskerearen sokea, tinko, tira!

ZERTZEAN



RAFA UGALDE

Hondarra dakar itsasoak, harea gehienetan, harritxo biribilduak ere bai eta, inoiz, koral hondarrik ere izan dut oinpean eta behatz artetik iheska.

Iraun egingo du hondarrak hondartzetan eta itsaslabarretako arrakaletan. Halaxe irauten dute nire azal zimelduaren zimurretan amodio akituek, zugatik egindako negarrek eta aspaldi ume izan zen gizonaren amets bete gabeek.

Emeki-emeki, zarratu egingo dira arrakalak, eta eduki guztiak barruki bihurtu eta erraietara josiko; gizon zahartua hondar alez betetako hondartza bezain bare eta egonkor bihurtu arte.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Parisera? Uff, eroan eropea hotz iten dau eta" behin eta barrero entzun behar izan dogu kotxea hartu eta 10 ordu eta gero Parisera heldu baino lehenago. Hotza berotasun faltea dala dinoe eta beraz, kipuleak lez gorputza erropa kapa infinitoakaz batu eta ia astegoinena aguantetan genduan! Turismo apur bat egin eta gero, helburua "mania" zanez zapatuan hamabietarako Montparnassen egon ginan. 11.000 persona batu ginan karteletan bahituta dagozan euskal preso politikoai gure babesa emon eta konponbideak eskatzeko. Batzuk karteletatik martxan bakardadea urtuz heldu ziran, beste batzuk alkartasuna borborka jarriz egun berean bueltetako biajea eginez, eta beste batzuk ondo deskansautan danon artean kaleak kantuz, jantzez eta aldarrikapenez pil-pilean jarteko.

Hotza berotasun falta baldin bada, Pariseko termometroak ez dagoz ondo.

**Andoni Ariznabarreta, Aritz Undurraga,
Asier Iturrate eta Garazi Santos**



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odoztorgia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbait 101
R.P.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA - SINTASOLA - PAPEREA
Elexalde, 33 D - 1º - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 64 62 - 606 664 018

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARRATIA

Euskerea lan-munduan sartzeako proiektua abiatuko da 2018an

Errota Fundazioak, 2018an eta 2019an, Bizkaiko Foru Aldundia zein Eusko Jaurlaritzagaz alkarlanean eta eskualdeko udalen babesagaz, lan munduan euskerea txertatzeko ekintza egitasmoa bideratuko dau. Zemendiaren 30ean proiektuaren aurkezpena egin zan. Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak, Lorea Bilbao Bizkaiko Euskara eta Kulturako foru diputaduak, Josune Zabala Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendariak, Ignacio Garcia Zulaibar Lanbide Ikastegikoak eta Batz kooperatibako Saioa Loizagak eta Unai Belaustegigoitiak lan munduan euskereak daukan presentzia eta presentzia hau handitzeko preminaz egin eben berba proiektuaren aurkezpenan.



Aurkezpena hurreratutakoak.

Erredakzioa

Arratia eremu euskalduna izan arren, euskereari lan munduan lekua emotea erronkarik handienetako bat dala esan eban Lemoako alkateak, eta hortik sortu zan proiektu hau aurrera aterateko idea. "Gure Euskara Plan Estrategikoan dagoan lanketarako puntu bat da. Eta proiektua Lemoan sortu eta landu genduan. Baina pentsau genduan holango proiektu batek Lemoan bakarrik ez eukala zentzurik eta interesgarriagoa zala, posible bazan, Arratia mailan martxan jartzea" azaldu deutso BEGITURI Lemoako alkateak.

Horregaitik Errota Fundaziora jo eban Lemoak, Errotak proiektua martxan ipini eian. Eta Errotak bideratuko dau "Lan munduan euskaraz bizitzeko 12 arrazoi" izeneko egitasmoa, BFA eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzeagaz.

Proiektuak urte biko plangintzea dauka. 2018an diagnostikoa egingo dabe eta 2019an, hasiko

dira enpresetan ekintza plana gauzatzen.

Alkarlana

Josune Zabalak Eusko Jaurlaritzak 10 urte daroazala enpresetan euskerea sustatzeko beharren eta proiektuak Jaurlaritzaren strategiagaz bat egiten dauala eta alkarlanaren garrantzia azpimarratu eban. Ildo beretik joan zan Lorea Bilbao foru diputadua, "lan munduan lan egin behar da modu eraginkorren gizarte eskaldunagoa egiteko. Lortu dana izan da askoren artekoen lanagaitik eta hori da sendotu egin behar dana" esan eban.

Bizkaiko Foru Aldundiak, 2000tik 2017ra, 106 enpresa diruz lagundu ditu eta 430 euskera plan egin dira enpresetan. Dirutan "lau miloe eta seirehun mila euroren bueltan" foru diputaduaren arabera. "Diru piloa da eta horri etekina aterateko momentua heldu da" esan eban Lorea Bilbaok. Esperientziak argi erakusten dauala euskeraz egitea ez dala

oztopo lan ona egiteko, kontrara baino, eta gaur egun ez dagoala barrikuntzarik ez badago hizkuntza kudeaketarik be esan eban.

Batz eta Zulaibar

Ignacio Garciak, Zulaibar Lanbide Ikastegian euskerea arlo guztietan sartzeako egindako ibilbidea adierazo eban. Orain dala hamarkada bi hasi zirala euskerea sartzean eta gaur egun, ikastetxean behar egiten dauan personal guztia euskalduna dala esan eban.

Batz kooperatibeari jagokonean, Batz eredu da euskerea lan munduan sartzean eta hainbat sari jaso ditu horregaitik. Atzena, egun bi lehenago, zemendiaren 28an, BFAk emondako Lauaxeta saria, barbarako.

Batzek 715 behargin ditu eta horreen %71k euskerea ulertzen dau. Euskera Plana beharginak eurak eskatu eben orain dala 17 urte eta hainbat gauza lortu dabez, tartean, lanean euskerearen presentzia bermatzea.

Lan munduan euskeraz bizitzeko 12 errazoi

Hurrengo hamabi errazoitan oinarrituta, lortu gura dabe enpresen euskerearen aldeko konpromisoa:

1. Pausu barri bat garapenerantza.
2. Enpresearen ikuspegitik, euskerearen erabilereak dinamismo, kalidade eta lehiakortasun irudia emoten dau.
3. Lan munduan euskerearen inplementazioa estrategikoa da hizkuntzaren normalkuntzarako.
4. Belaunaldi barriak euskeraz lan egiteko prestatuta eta motibauta dagoz.
5. Formaziotik lanerako euskerazko ibilbidea naturala izan behar da.
6. Gazteen ezagutza baliagarria da enpresan euskerearen aldeko lanketan laguntzeko.
7. Zerbitzua euskeraz eskeintzeak balio erantsia dakar.
8. Arratian lanean izan ezik, bizitzeko beste arlo guztietan euskerea da hizkuntza.
9. Inguruneari errespetua zor deusagu. Bertako hizkuntza errespetau behar da.
10. Behargin eta bezeroakanako komunikazioa eta gogobetetzea hobetzeko orduan, euskereak eragina dauka.
11. Euskerea hizkuntza ofiziala da Arratian, hori dala-eta beharginak euskeraz be behar egiteko eskubidea daukie.
12. Euskerea lan hizkuntza izatea posible da enpresa osatzen dabenen adostasuna lortzean bada eta gainerako hizkuntzak errespetetan badira.



Ignacio Garciak Zulaibarrek ibilbidea azaldu eban.



Hainbat enpresatik hurreratu zan jentea.

ARRATIA

Jostailu barriak jasoteko kanpaina martxan**Arratiako Gurutze Gorriako ordezkariak jostailuakaz.****Erredakzioa**

Zemendiaren 22an ipini eban martxan Arratiako Gurutze Gorriak jostailu barriak jasoteko kanpaina. Aurten be, jostailu barriak, ez beliko eta ez sexistak batuko dabez familiaren egoera ekonomikoa dala-eta, Arratiako umerik jostailu barik geratu ez daiten.

Jostailuak abenduaren 19aren inguruan bananduteko asmoa daukie AGGkoak, beraz jostailuak egun horren aurretik eroatea komenidu da. Hamabi urte arteko 65 ume inguru dagoz jostailuak jasoteko zerrendan.

Elikagai bankurako 3.000 kilo

Arratian Gurutze Gorriak dauka hartuta Elikagaien Bankuaren ardura. Bizkaiko Elikagai Bankuak abenduaren 1 eta 2an egin eban urteroko janari bilketea eta Arratiako komertzioetan be bildu ziran jatekoak. Igorreko Jubiladuen alkarreak parte hartu dau aurten bilketan eta Arratian, 3.000 kilotik gora jaso ditue.

Arratiako Gurutze Gorriak hilero Elikagai Bankutik 45-50 familia ingururentzako elikagaiak jasoten ditu. Basauritik elikagaiak hartu, loteak egin eta banaketaren ardura daukala azaldu deutso BEGITURI Idoia Zuloaga Gizarte Eskuhartzeko Teknikariak.

LEMOA

Urte amaieran presoan aldeko manifestazinora deitu dau Kalera Kalerak**Erredakzioa**

Abenduaren 31n, arrastiko 18:30ean, euskal preso, igeslari eta deportaduen eskubideen aldeko manifestazinora deitu dau Kalera Kalerak dinamikeak. Manifestazinoa Lemoako Intzuntzeko plaza gorrian hasiko da.

Kalera Kalerak euskal preso eta igeslarien aldeko mobilizazinoa, espetxeetara martxak eta ekitaldi kulturalak antolatuten ditu Euskal Herri osoan zehar. Urte amaierako Lemoako manifestazinoa tartean.



LEMOA

Pedro Azpiazu Lemoara hurreratuko da Arratiarrakaz berbetan EAJ-PNVren berbaldi zikloan**Erredakzioa**

Pedro Azpiazu Ogasun eta Ekonomia sailburua Lemoan izango da abenduaren 19an, 19:30ean, Jubiladuen Etxeko goiko lokalean, bertarututakoai Euskadiko egoera ekonomikoren gainean berba egiteko.

Azpiazuk, 2018 urterako EAEko aurrekontuak azaldu, eta alderdi politikoak aurrekontuen negoziaketan izan daberen egitekoaren nondik norakoak aurkeztuko ditu. Baita Kupoari buruzko akordioaren ingurukoak be.

Lemoakoa, Arratiako EAJ-PNVk

antolatutako *Arratiarrakaz berbetan* zikloko seigarren berbaldia da. Ziklo honeguz 2017an, Arratiako herrietara hurreratu gura izan dabez politika arloan jarduten dabena, topagune bat sortzeako, galderak egiteko, zalantzak, ideak edo kezak planteetako, eretxiak adierazteko eta, "egoki" jo ezkerro proposamenak egiteko.

Aurretik egon diranak, Josu Erkoreka Igorren, Aitor Esteban Zeanurin, Jonan Fernandez Diman, Arantxa Tapia Lemoan, eta Ana Otadui, Izaskun Landaia eta Sara Gutierrez Artean izan dira.

**Pedro Azpiazu.**

DIMA

Udal ikastaroak urtailetik aurrera**Erredakzioa**

Bigarren hiru hilabetean, hau da urtailetik martiara arte, udal ikastaroren baten parte hartu gura izan ezkerro, abenduaren 18tik 29ra emon daiteke izena udaletxean. Diman errolatuta dagozanak izango dabe lehentasuna eta taldeak aurrera egiteko 8 lagun behar dira gitxienez. Talde bakoitzean 12 leku dagoz. Izena emon

dabena gehiago badira, zozketea egingo da.

Hurrengo ikastaro honeetan emon daiteke izena: Yoga, Eskulanak, Pilates, Txi kung, Entrenamentu funtzionala, Gimnasia hipopresiboa eta Zunba. Prezioak 50 eta 75 euro bitartean dira Diman errolatuentzat eta 70 eta 105 bitartean Diman errolatuta ez dagozanentzat.



DIMA

Kutzazain automatikoa seguratasun falteagaitiko kejak Diman**Erredakzioa**

Kutxabank-ek kutxazain automatikoa bakarria dauka Diman eta erabiltzaile batzuen arabera, "ez dau behar dan moduan jago ten". Zemendian, asteetan egon zala argi barik jakinarazo eutsan BEGITURI herritar batek eta kutxazain automatikoa astegoienean hondatuten danean, dirua atera ezinik geratuten dirala dino. Kejak bideratzeko bezeroak zerbitzu zuzena daukiela azaldu dau Kutxabank-ek.

Kutxabank-eko kutxazain automatikoa argi barik egon da. Gau baten, neska bat dirua ateraten egoala, gizon bat sartu, eta atea zarratu eban. Susto handia hartu eban neskeak. Gizona, han barruan inor ez ebalako ikusi sartu zan. Baina egoereak agirian itxi eban kutxazain automatiko haretako seguratasun eza.

DIMA

Ume eta familien irakurle kluba bardintasuna sustatzeko Diman**Erredakzioa**

Dimako Guraso Elkarrean, hezkidetzea zabaltzeko proiektua ipini dau martxan. Ume eta familien irakurle kluba izenpean, Mireia Delgado ipuin kontalariak eta hezkidetzan adituak gidatuko dau ume eta gurasoai zuzendutako proiektu hau.

Proiektuak 6 saio izango ditu. Lehenengoa, abenduaren 12an izan zan eta gurasoentzako hezkidetzan formakuntzako saioa izan zan. Bertan adierazo eutseen gurasoai proiektua bera.

Hurrengo lau saioak, irakurle klub formatua izango dabe. Abenduaren 27an, urtailaren 10 eta 24an, eta zezeilaren 7an izango dira. Amaituteko, zezeilaren 21ean, ipuin kontaketea eta afari meriendea egongo da. Saio guztiak Dimako liburutegian izango dira eta arrastiko seiretan hasiko dira.

ARTEA

2018ko kontuak abenduan bozkatuko dira Artean



Arteako udaletxea.

Erredakzinoa

EAJ-PNVk egindako emendakinak aztertu eta emendakinok aprobau ezker 2018ko udal aurrekontuetan sartzea eta onartzea baino ez da falta Artean. Kontuak herritarrak egindako 33 ekarpen jasoten dabez. Aurrekontuak egiteko prozesu parte hartzailean, 71 lagunek hartu dabe parte, biztanleen %10a.

Auzo Batzarretan 35 ekarpen jaso ebazan Udalak. "Pare bat ez ziran onartu eta beste guztiak egiteko asmoa dago" azaldu deutso BEGITUri Igor Etxaniz Arteako alkateak eta horren barri emon eban udalak "Arteaztarron batzarrean" 2018ko kontuen zirriborroa aurkeztuta.

Ogasun Batzordearen bigarren batzarra egin dabe ondoren eta Batzordean, EAJ-PNVk emendakinak aurkezteko asmoa adierazo eban. Hori dala-eta, baleiteke aurrekontuak bozkatzeko eguna apur bat atzeratzea, baina urtea amaitu orduko bozkatuko dirala dino Etxanizek. Hilaren 19an bozkatzea egoan aurreikusita.

2017ko 3 eskaera 2018an

2017ko udal kontuak, herritarrak egindako 30 eskaera jaso ebezan. Horreetatik 3 ez egitea ebatzi zan; biren ardura Udala ez dan beste erakunde batek dauka, eta beste hiru, 2017an ez ziran egin baina 2018an egingo ditue. Beste guztiak eginda dagozala dino alkateak.

IGORRE

Tonboleak Arratiako misinolariei lagundutako dirua batu dau

Erredakzinoa

Ehundaka sari banandu ditu tonboleak Igorren eta jasotako dirua misinolari arratiar birengana bideratuko dau: Congon dagoan Maribel Egiluz eta Perun dabilen Juanita Agirrerengana, hain zuzen be. Abenduaren 14, 15, 16 eta 17an egon da zabalik.

Boletoak euro baten prezioan saldu dira. Sariak, Arratiako komertzioak, enpresak edo jenteak emondako produktuak, eta andra talde batek urtean zehar egindako artisautza lanak izan dira.



Tonbolan batutako dirua misinolari arratiar birengana bideratuko da.

ARRATIA

Torontile serigrafia artistiko proiektuak irabazi dau Enpresa-Ideien Lehiaketea

Emma Aguilar arteaztarrak eta Maitane Iruarrizaga igorretarrak irabazi dabe Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) antolatutako Arratiako Enpresa-Ideien Lehiaketea Torontile proiektuari esker. Sarizat, 3.000 euro jaso dabez eta lokal bat itxiko jakie doban urtebetez lan egiteko.



Saridunak Miguel Angel Etxebarria AUMeko presidentetaz.

Erredakzinoa

Plazapp Arratia, baserriko produktuak saltzeko aplikazioak eta Arratia martxan, ekintzailetza bultzatutako proiektuak jaso dabez bigarren eta hirugarren sariak hurrengo hurrengo.

Torontile 2015ean sortu eban, diseinu grafikoa eta serigrafiaren inguruan baina "atzenean geratu gara serigrafia artistikoagaz. Gure

beharrizana da gure produktuakaz jenteari zeozter kontetea. Guretzat oso inportantea da gai sozialak adierazotea" azaldu eban Emma Aguilarrek. Torontilek arlo bitan egiten dau behar serigrafia oinarri hartuta, produktuak daukiez "testila eta papelean, batez be" alde batetik; eta tailerrak eta ikastaroak bestetik. Enpresa honetako produktuak organikoak eta bidezko merkataritzakoak dira.

Lehiaketarako deia Arratiako Udalen Mankomunitateak egin eban Bizkaiko Foru Aldundiaren Gaztedi Bizkaia Planaren bidez, "eskualdean ekintzailetzako kultura sustatu, ekonomia bultzatu, eta enplegua eta aberastasuna sortzeko asmoz".

Idea lehiaketan 18 eta 35 urte bitarteko ekintzaileak hartu ahal izan dabe parte. Enpresea edo ekoizpen zentroa, Arratian "ardaztuta" egon behar da.

Enpresa idea sariak

Bigarren saria, Igor Goiriena eta Amaia Uriberen Plazapp Arratia baserrietako produktuak saltzeko aplikazioak jaso dau. Eta hirugarrena, Modragon Unibertsitateko Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza graduako ikasle talde batentzat izan da, Libe Delgado dimoztarra tartean, Arratia Martxan proiektuagaz. Proiektua, enpresa barriak sortzean dabiz ekintzailei aholkuak eta laguntza emoteko da.

Epaimahaia, Beaz, Errota, Gorbeialde, Zulaibar eta Lemoako Udaleko ordezkariak osotu eban. "Batez be proiektuaren izaera barritzailea, balio gehigarria eta originaltasuna, eta kalidatezko enplegua sortzeko euki leikean gaitasuna hartu dabe kontuan. Horrez gainera, proiektuaren garapen-maila, definizioa, iraunkortasuna (ingurumenekoa eta ekonomikoa) eta eragin soziala hartu ditue kontuan" azaldu dabe Mankomunitadetik.

Sariak banandutako ekitaldia abenduaren 14an izan zan.

ARTEA

Bertso-bisitea Arteako Kultur Etxea berrinauguretako

Erredakzinoa

Arteako Kultur Etxe barriztatua sano modu bitxian ikusteko aukerea izan eban jenteak abenduaren 1ean. Berrogeta hamar lagun inguru batu ziran eta Arkaitz Estiballesek egin ebazan gidari lanak, solairu bakoitxeko gelak bertsoen bitartez deskribidu eta erakutsiz. Bisitarien artean, Juanjo Respaldiza bertsolaria be baegoan eta bigarren eta hirugarren pisuan biak batera egin eban emonalditxo. Pisu bakoitxean jana eta edana egon zan eta ostean, Mikel Markezen kontzertua.



IGORRE

Alia enpresan gas isuria gertatu zan

Erredakzinoa

Abenduaren 12an, goizeko 11:15ak aldera, karbono monoxido isuria gertatu zan Igorreko Alia enpresako galdara baten. Istripuaren ondorioz, 8 lagunek gasa arnastu eta arreta medikua behar izan eban. Euretako lau Galdakaoko ospitalera eroan behar izan ebezan. BEGITUren iturrien arabera, daborduko danak jaso dabe ospitaleko altea.

Alia enpresek aluminiozko piezak egiten ditu beste enpresa batzuetara saltzeko.

DIMA

Plazea berrantolatzeako proiektuaren bigarren bersinoa aurkeztu dau talde teknikoak Diman

Jenteak egindako iradokizunak jasoten dauan plazea berrantolatzeako proiektuaren bigarren bersinoa aurkeztu eben Ele Arkitekturako arkitektoak abenduaren 13an. Aurreko projektutik egindako aldaketarik garrantzitsuena, plazatik autoen zirkulazioa norabide bietakoa izateko proposamena da.



Bigarren bersinoaren aurkezpena hurreratutako jentea.

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 5ean egin zan lehenengo proposamena eta iradokizunak jasoteko epe bat zabaldu zan. Borja Ruiz zinegotziak azaldutakoaren arabera, bakarkako hogeitasei jaso dira eta horreetako bakotxean hainbat iradokizun egon dira. Modu ko-

lektiboan egindako beste 56 iradokizun be jaso ditu Udalak, danak bardinak norbanakoen sinadurakaz. Bitartean batzar bi egin ditue Udalak eta herritarrak.

Iradokizun gehienak proiektuaren bigarren bersinoan sartu dira eta sartu ez diranak zergaitik ez diran sartu azalduten dauan gutun bat jasoko dabe etxean irado-

kizunen egileak. Bigarren bersino honeri ekarpenak egiteko beste epe bat zabalduko da urtailaren 15era arte. Proiektuaren planoak etxeetara bialduko dauz Udalak eta etxetik egin ahal izango dira iradokizunok.

Plazea oinezkoentzako...

Proiektua aurkeztu eban Ele Arkitekturako arkitektoak gogora ekarri eban, prozesu parte hartzailearen ondorioak dirala euren erispideak. Prozesu haretan parte hartu ebenak, plazeak plaza izakere berreskuratzea gura eben eta oinezkoen espazio erreferente izatea. Eta egindako proposamen guztiak plazea oinezkoentzako aldekoak izan ziran. Hortik abiatu zan talde teknikoaren diseinu proposamena, urri bigarrenaren 5ean aurkeztu zana.

Dana dala, herritar askok proiektua birplanteau gura dabe eta 400 sinadura inguru jaso ebezan Udalar euren biltzea eta momentuz proiektua bertan behera ixteko eskatuten. Euren bitan batu da Udala eta jasotako iradokizunak sartu ditu talde teknikoak. Holan, plazatik autoen zirkulazioa ez da norabide bakarreako izango, norabide bietakoa baino eta umeentzako jolas batzuk be kendu ditue. Plazatik ahalik eta kotxe gutxi pasetea eta plazea batez be oinezkoentzako izateko eta bertan ez aparketako helburuak mantentzen egin ditue.

Bigarren bersino honetan, etxe guztietarainoko ateetara kotxez heldu ahal dala, eta aparkalekua minutu bi baino gutxiago eukiko dabela bermatu eben arkitektoak.

... edo ez

Bersino barriak ia iradokizun guztiak jasota euki arren, ez ebalu adostasun handirik lortu ikusi

zan aurkezpenean eta tensino handiko momentuak be bizi izan ziran. Plazearen oinezkoentzako inguruko kaleetako zirkulazioan dauka eragina eta traba gehienak kaleak estuak izanda momentu puntualetan ibilgailu handiak euki leikiezan zailtasunetan zentratu ziran. "Plazea oinezkoentzako gura dan ala ez ipini daiteke mahai gainean, baina guza puntualak ezin dabez baldintzatu oinezkoentzako proiektua" esan eban Nekane Intxaurtza Dimako alkateak.

Prozesua martxan ipini arte, plazea oinezkoentzako izatean konsensoa egoala irudian. Izan

be, EH Bilduk bere hauteskunde programan eroan eban plazea oinezkoentzako promesa eta lehentasuna eukien proiektuen artean egindako inkesta baten be halan agertu zan. Prozesu parte hartzailean parte hartu eben talde guztien diseinuetan be holan zan.

Baina konsensorik ez dagoala argi geratu da eta ahalik eta konsenso handiena lortzea gura dabe udaleko alderdi biak, beste ezerreri ekin baino lehenago. Herritar batek honen gaineko herri galdeketea proposatu eban, dimoztarrak zer gura daben argi geratu daiten.

ARRATIA

Hezkuntza publikoko grebak %90 inguruko jarraipena izan dau

Erredakzioa

ELA, LAB eta Steilas sindikatuak greba egun bi deitu eben irakaskuntza publikoko lan baldintzak hobetuteko eskatzeko. Lehenengo zementuaren 30ean izan zan eta Arratian %87ko jarraipena izan eban. Bigarrenak, abenduaren 12koak, %91rainoko jarraipena izan eban.

Irakasleak, hezkuntza inbersinoak, plantillak eta baliabideak handitzea, behin-behinekotasun maila eta gelako ikasle kopurua murriztea, eta lan baldintzetan egindako murrizketak alde batera ixteko exijidutako egin eben greba eskola eta institutuetako irakasleak. Hezkuntza, ikasle euskaldun eleantuntunak sortu eta, LOMCE eta Heziberri alde batera itxita, bardintasuna, justizia soziala, integrazioa eta gizarte kohesinoak bermatzeko tresna izatea be aldarikatu eben.

Segimendu oso zabala

Zementuaren 30ean, Arratian irakasleen %86,6k egin eben greba. Lemoako JB Eguzkiza Meabe eskolan %82; Dimako Ugaranan %100; Zeberioko Zubialde eskolan %100; Zeanuriko eskolan %81; Arteako Ikastola Arratian %92; Areatzako Herri eskolan %65; Igorreko Inazio Zubizarreta eskolan %100 eta Arratia Institutuan %73.

Abenduaren 12an, %91ko segimendua izan eban grebak. Egun horretan, Lemoako JB Eguzkiza Meabe eskolan irakasleen %86k egin eben greba; Dimako Ugarana eskolan, danak; Zeberioko Zubialden be irakasle guztiak; Zeanuriko eskolan %81ek; Arteako Ikastola Arratian %96k; Areatzako Herri eskolan %89k; Igorreko Inazio Zubizarreta eskolan danak, eta Arratia Institutuan %76k.

Arratia
Ubide eta zeberioko
euskereak
eta kulturearen alde

Egin zaitez zeu be

Hamabostero
begitu zeure etxean

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Errean jasoko dozu Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Zertu Kultur Elkarteak
Berrito Plaza 21, 20172 Arratia

Izen-abizenak:
Helbidea:
Herria:
Telefonoa:
E-posta:
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu



Eileke
Zentro Psikoedukatiboa
www.eileke.com

- Arreta goiztiarra
- Laguntza psikoedukatiboa
- Logopedia
- Fisioterapia
- Psikomotrizitatea
- Jarrera arazoak eta askoz gehiago

Francisco Maciá 4-1º centro. 48014 BILBAO
Telefonoak 94 607 19 85 / 652 702 650

Askatasun etorbidea 4. 48200 DURANGO
Telefonoak 94 466 90 71 / 672 481 370



publicidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es



GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan



2018an
be lorpen barriak
batera lortzeko
prest!



BATZ ZORIONAK
ETA URTE
BARRI ON

www.batz.eus

GABONETAKO AGENDEA

Kultura ekintza ugari prestatu ditue urteko azkenengo hamabostaldian

Arratia, Ubide eta Zeberioiko Udalak eta alkarteak, ume eta nagusiei zuzendutako hainbat jarduera prestatu ditue Gabon sasoirako. Tradizinoak agindutako moduan, Olentzeroren etorrerea eta Gabon kantak ez dira inon faltauko. Umeak, olgetan ibilteko aukerea izango dabe Gabonetako parkeetan. Nagusientzako be antzerki eta kontzertu eskeintza zabala izango da gurean.

Erredakzioa

Arantzazu

Abenduak 24, domekea

11:00etan, Olentzero abestu auzorik auzo; 13:00etan, Olentzeroren etorrerea plazan.

Abenduak 26, martitzena

11:00etan, umeen esku pelota partiduak. Gero desafioa lau t'erdian, Agirre-Arrese. Frontoian.

Abenduak 30, zapatua

11:00etatik 14:00etara, Gabonetako Umeen Parkea frontoian.



Iñaki Perurenak berbaldia emongo dau Areatzan.

Areatza

Abenduak 22, barikua

18:00etan, Bilboko Euskalduna Jauregira urtekerea, 19:30eko BOS eta Bilboko Koral Elkartearen Gabonetako kontzertua ikusteko. Kontzertura joateko izen emotea abenduaren 18an, 19:15etik

20:15era udaletxeko 3. solairuan.

Abenduak 24, domekea

11:00etan, umeentzako tailerrak. Guraso Elkarteak antolatuta.

13:00etan, Olentzerori ondo

etorria egiteko ensaioa. Guraso Elkartearen eskutik.

17:00etan, Guraso Elkarteak antolatuta, Olentzerori ondo etorria emoteko kalejireia, jantza eta ha-

rrerea.

Abenduak 27, eguaztena

12:00etan, AKKBk antolatuta, Tor Magoaren Hator magiara ikuskizuna. Ludotekan.

19:30ean, AKKBk antolatuta, Coro Rossini abesbatzaren kontzertua "Gabon kantak" eleizan. Ostein mokadutxoia AKKBk antolatuta.

Abenduak 28, eguena

19:00etan, Areatzako toponimia lanaren aurkezpena. Labayruko Adolfo Arejita eta Akaitze Kami-rugaren eskutik. Udaletxeko Aretto Nagusian.

Abenduak 29, barikua

17:00etan, Umeen Gabonetako Esku Pelota Txapelketa Mistoa; 18:00etan, Gabonetako Nagusien Lau t'erdiko Esku Pelota Txapelketa (banaka). AKKBk antolatuta.

19:00etan, Eresöinka taldearen kalejireia tabernaz taberna.

Abenduak 30, zapatua

19:00etan, Areatzako Bandaren kontzertua. Eleizan.

Abenduak 31, domekea

08:00retan, Lamiño Kirol Klubak antolatuta Siskiño eta Oketara mendi urtekerea. Autobusa debalde izango da. Langostinoak, txanpana eta saldea egongo dira.

Urtailak 4, eguena

19:00etan, AKKBk antolatuta, Iñaki Perurenaren kontakizun eta erakustaldia "Harria. Maitasun istorioa" nagusientzat. Udaletxeko Aretto Nagusian.

Artea

Abenduak 24, domekea

17:00etan, Olentzero Arteatik paseoa; 18:30ean, ondo etorria plazan.

Abenduak 30, zapatua

18:00etan, Orientazio proba familientzat; 19:00etan, txixi-burruntzia; 19:30ean, Gabon kantak plazan.

Dima

Abenduak 24, domekea

11:30ean, Guraso alkarteak antolatuta, Olentzerori errefujiaduentzako opariak eroan eleizan.



RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Airezatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

M. Jose zure arropa

GALANTA


Eguberri on!

Agirre Lehendakaria 23 - 48140 Igorre - galanta@hotmail.es - 94 631 90 08

www.facecook.com/galanta.lenceria

begitu

arratia ubide zerbetea



egizu lo lasai, geu arduratuko gara zeure loaz

- Beilatokia
- Errausketa-labea
- Gorpuak eroan zein ekarri estatu barruan eta atzerrian
- Lora-apaingarrien salmenta
- Gestino administratiboa
- Eskelak, doluminak eta esker onak online

■ **Bulegoa**
Zabalea, 51 · 48960 Galdakao
t. 944 570 395 (24 ordu)
f. 944 575 043
e. info@funerariagalarza.com

■ **Dimako tanatorioa**
Ziarrusta industrialdea, 39

■ **Galdakaoko tanatorioa**
Zabalea, 24



Bedia

Abenduak 19, martitzena

19:00etan, Arratiako Musika Eskolearen kontzertua Bediako eleizan.

Abenduak 22, barikua

17:00etan, Gabonetako apaingariak herriko leku publikoetan ipinteko egin ludotekan; 18:30ean, apaingariak ipini Gabon kantak abestuz; 19:30ean, txokolatea. Udalak antolatuta, Bediako gazte trikitilari eta Eleizalde jubiladu eta pensionisten alkartearen laguntze-agaz.

Abenduak 28, eguena

10:00etan, urtekerea GUPera. Bueltea 19:00ak inguruan. Bazkaria eta merienda eroan behar dira.

Abenduak 29, barikua

16:00etan, urtekerea Arriaga Antzokira *Izar-Estrella* ikuskizuna ikusteko. 7 urtetik gorakoentzat.

Urtailearen 2tik 5era,

10:30etik 13:30era, ludotekea eta liburutegia zabalik.

Urtaileak 5, barikua

18:30ean, Erregeen Kabalgatea. Aurretik txokolatea bananduko da.



Abenduak 24, domekea

13:30ean, Olentzero plazan umeakaz egoteko. Gaztaina erreak.

Abenduak 26, martitzena

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Gabonetako Parkea frontoian.


Igorre

Abenduak 18, astelehena

18:30ean, Arratia Musika Eskolearen ikuskizuna *Musikatu bizitza eta urte barri on!* Lasarte Aretoan.

Abenduak 22, barikua

21:00etan, Houston Pub-en *Zure*



Nerea Ibarzabal.

ondo tabernan diskoaren aurkezpena Lasarte Aretoan.

Abenduak 23, zapatua

18:00etan, Arantzarte jantza taldearen jantza saioa frontoian.

22:00etan, Glaukoma eta Little Martin Selektah-ren kontzertua Kiñu Gaztetxean.

Abenduak 24, domekea

12:00etan, Badator Olentzero Mikeletik. Baserritar jantzita joan.

Abenduak 26, martitzena

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea eta Zaztaparrak-en tailerrak aterpean.

20:00etan, AMEk antolatuta, Zeñi Antzerki Taldearen emonaldia eta ostean Gabonetako 3 otzararen zozketea Lasarte Aretoan.

Abenduak 27, eguaztena

19:00etan, Arratiako Bertso Eskoleak antolatuta, *Irudibertsotan*. Bertsolariak: Etxahun Lekue, Nerea Ibarzabal, Amets Arzallus eta Oihana Iguaran. Marrazkilaria: Igor Menika. Lasarte Aretoan.

Abenduak 28, eguena

20:30ean, Yllana taldearen nagusientzako *Primitals* testu bako antzezlan. Lasarte Aretoan.

Abenduak 29, barikua

17:00etan, Zaztaparrak eta Maraturen eskutik, jostailu azoka Kultur Etxean.

19:30ean, Luis Iruarizaga Abesbatzaren Gabonetako kontzertua Lasarte Aretoan.

Abenduak 31, zapatua

VIII. San Silbestre lasterketea. 11:00etan, izena emon eta

11:30ean urtekerea. Mozorrotuta joan.

Urtaileak 4, eguena

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea eta Motxoganen tailerrak aterpean.

Urtaileak 5, barikua

18:30ean, Erregeentako Kabalgatea Mandoia kaletik.

Urtaileak 6, zapatua

19:30ean, Areatzako Bandaren kontzertua Lasarte Aretoan.

Urtaileak 7, domekea

17:00etan eta 19:00etan (saio bi), Glu glu konpainiaren umeentzako antzerkia *Alizia lurralde miresgarrian*. Lasarte Aretoan.

Lemoa

Abenduak 21, eguena

10:00etan gaztaina eguna eskolan.

18:00etan, akordeoi eta trikitixak. Arratiako Musika Eskolako ikasleen emonaldia. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

Abenduak 22, barikua

10:30ean, Olentzero eta Mari Domingi eskolatik udaletxera.

19:30ean, magia poteoa Txoborro magoagaz Txoane tabernatik hasita.

Abenduak 24, domekea

Olentzero Eguna. 11:00etan udaletxean, auzorik auzo Olentzero eta Mari Domingigaz batera Gabon kantak abestu. Elizondon saldea eta txokolatea egongo dira. Kulturagunean Olentzero eta Mari Domingigaz egoteko aukerea. Gozokiak.

Abenduak 26, astelehena

18:30ean, Makrame ikastaroa Karabie Gaztetxean.

Abenduak 27, martitzena,

19:30ean, *Donbass gerra Europako bihotzean* dokumentala eta barriketaldia EH Donbass Elkartasun Komiteko kideakaz Karabie Gaztetxean.

Abenduak 28, eguena

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Gabonetako haur parkea: txikigunea, tailerrak, puzgarriak, ohe elastikoak. Kiroldegian.

20:00etan, Anodino Teatro konpainiaren *Erbeste edo saihets baten aldarrikapenak* antzezlan. Karabie Gaztetxean. Korto Express Film Laburren Lehiaketaren hasierak.

Abenduak 29, barikua

22:30ean, La Txirla Records eta Nebula Delektah Dja Karabie Gaztetxean.

Abenduak 31, domekea

10:30ean, Karabie Gaztetxeko urteroko futbol partidua.

12:30ean, Eneko Zamalloa Memoriala. Lemoako VII. Gabonetako Lasterketea. Elizondon.

Urtaileak 2, martitzena

19:30ean, Korto Express emonaldia Karabie Gaztetxean.

Urtaileak 3, eguaztena

19:30ean, Pintxo Lehiaketea eta Hiri Galduak-en kontzertu akustikoa Karabie Gaztetxean.

Urtaileak 5, barikua

Iluntzean "Zerbait is coming...".

Ubide

Abenduak 24, domekea

19:00etan, guraso taldeak antolatuta, Olentzero eta Mari Domingiri agurra.

Zeanuri

Abenduak 24, domekea

12:00etan, plaza apainduteko deia.

17:30ean, Olentzeroren etorrerea plazan. Baserritar jantzita joan.

Abenduak 28, eguena

18:30ean, Jakoba Errekondoren *Landareak lantzen* agendaren aurkezpena eta konsultategia Kultur Etxean.

Abenduak 29, barikua

19:00etan, *Expect the unexpect*



Karabie Gaztetxeak antolatutako ekintzak.

BON 10+

Zure 20 euroak 30 bilakatzen dira.

Enkendi, argelara, hiru comen

EUROKO JUBILADUA GOBERNU VASCO

EUSKOMER

www.bono10.eus

ted audiobisuala eta berbaldia Kultur Etxean.

20:30ean, Sorry Street Band-en kontzertua Jubiladuen tabernan.

Abenduak 30, zapatua

19:00etan, Kukai jantza taldearen *Gelajuziak* emonaldia frontoian.



Gelajuziak.

Abenduak 31, domekea

11:00etatik aurrera, San Silbestre lasterketea. Ondoren saldea, taloa... Atoan eta Joko Alai alkar-teen laguntzeagaz.

Urtailak 2, martitzena

16:30ean, bizikleta ginkanea Arratiako Ziklista Elkarte eta Atoan alkar-teagaz; **18:30**ean, berbaldia Igor Anton, Mikel Zarrabeitia eta Murias taldeko txirindulariren bategaz. Kultur Etxean.

Zeberio

Abenduak 22, barikua

18:00etan, *Hor konpon Marian-ton* antzezlanaren udaletxean.

20:00etan, Flamenko pintxo saioa Ermitabarrin.

Abenduak 24, domekea

17:30ean, Olentzeroren etorre-rea Ermitabarritik plazara. Ostean, txokolatea plazan.

Abenduak 26, astelehena

Etxazo auzuneko jaiak. **12:00**etan, mezea San Esteban ermitan, herri kirolak, txalatorta eta abar.

Abenduak 28, eguena

19:00etan, Ipuin kontalaria, *Euskal mitologia* ezagutzen. Batzokian.

Abenduak 29, barikua

12:00etan, San Tomas Zaharra ermitan mezea eta barauskarria.

18:00etan, bola jaurtiketea;



20:30ean, taloak eta txokolatea Ermitabarrin.

Abenduak 30, zapatua

18:00etan, Xabier Madariaga eta Mikele Granderen berbaldia "Sexua, umeen erabagia. Transexualitatea umeen artean" udaletxean.

Abenduak 31, domekea

10:00etan, Austarri Mendi Taldeak antolatuta mendi urtekerea. Tontorrandira. Plazan.



ZU BAI ZU 2

TALENTU LEHIAKETA

TALENTU BILA ARI GARA BERRIRO ERE!!

Erakutsi zure abilezia, gaitasuna, trebezia!!!
Parte hartu talentu lehiaketa zoro honetan!!

Izena emateko epea:
2017ko abenduaren 12tik
2018ko urtarrilaren 31ra

Izena emateko:
- Igorreko Kultur Etxean
- Email bidez: zubaizu@igorre.net
- Telefonoz: 676 24 77 84

Informazio gehiago
Igorreko Kultur Etxean

2.500€ SARITAN!!

 **IGORREKO UDALA**

AREATZAKO UDALERA HURBILTZEKO BIDEAK



Udaleko ordutegia: 10:00-14:00



Aurrez aurreko bilerak alkate eta zinegotziekin: deitu 94 673 90 10 telefonora eta utzi zure telefonoa



komunikazioa.areatza@bizkaia.org eta www.areatza.net



Areatzako Udala



areatzako_udala



Agenda Whatsapp bidez jaso gura baduzu bialdu mezua "Agenda" hitzarekin 656 778 094 telefonora



FUTBOLA

Arratia bigarren sailkapenean

Erredakzioa

Arratiako andrazkoen taldea bigarren postuan dago bigarren bueltako lehen partidua jokatu eta gero, arratiarrak 39 puntu ditue eta liderra dan Tolosak puntu bat gehiago dauka. Atzenengo lau partidua jarraian irabazi ditu Arratiak, Arratia 2 Derio 0, Betiko Neskak 1 Arratia 3, Arratia 3 Barakaldo 1 eta hilaren 6an jokatuak atzenengo partiduan 3 eta 0 irabazi eban Arratiak Oiartzun B taldearen kontra. Gabonak tartean, hurrengo partidua urtaileko lehen astegoienean jokatu dau Arratiak Mariño taldearen kontra etxetik kanpo.

Arratia B

Arratia B taldeak jokatuak atzen hiru partidua irabazi ditu. Arratia 10 Basauritar 0, Ariz 3 Arratia 7 eta Arratia 2 Leioako Emakumeak 0 izan dira lortutako emoitzak. Arratia B bigarren da zortzi partidu jokatu eta gero 19 puntugaz. Hurrengo partidua 23, 24ko astegoienean jokatu dau Arratiak Basauriko Kimuak talderen kontra Urbietan.

Arratia gizonetakoak

Arratiako gizonetakoak taldeak hilaren 2an galdu egin eban Urbietan

Galdakao A taldearen kontra. Hilaren 10ean jokatuak hurrengo partiduan Arratiak husnako bardinketea lortu eban Sondikaren kontra etxetik kanpo. Arratia, hamabi jardunaldi eta gero zazpigarren dago sailkapenean 18 puntugaz. San Pedro taldearen kontra jokatu dau hurrengo partidua Urbietan 23, 24ko astegoienean.

LemoaHarrobi eta Arratia B

LemoaHarrobi hirugarren postuan dago 23 puntugaz, liderrarengandik puntu bakarrera, 10 jardunaldi jokatu eta gero. Abenduaren 3an jokatuak partiduan 0 eta 2 irabazi eban Iraultza taldearen kontra eta hilaren 6an jokatuak 1 eta 4 galdu eban Arlonagusian Beto-latza taldearen kontra. Hurrengo partidua Zorrontzako taldearen kontra jokatu dau Lemoako taldeak, 23, 24ko astegoienean.

Talde berean dagoan Arratia B ostera zazpigarren dago sailkapenean 12 puntugaz. Abenduaren 2an Fruiz B taldeagaz bina bardindu eban, eta hilaren 6an Urbietan 1 eta 3 galdu Cultural B taldearen kontra. Hurrengo partidua Iraultza taldearen kontra jokatu dau Arratiak 23, 24ko astegoienean.

PELOTEA

Gabonetako III. Txapelketako finalerdiak eta one wall erakustaldia Diman

Abenduaren 22 eta 29an jokatu dira finalerdiak eta finala urtailaren 5ean. Egun horretan, finalaz gainera, One Wall modalidadeko erakustaldi mistoa egongo da. Amaia Ariztegi eta Patri Espinar munduko txapelkunak eta txapelketa ha Kolonbian jokatu eban Egoitz Amantegi eta Eñaut Esnaolak egingo dabe erakustaldia.

Erredakzioa

Txapelketan Bizkaian punta-puntan dabiz pelotariak egongo dira maila guztietan.

Dimako Gabonetako Txapelketa Kimu, Kadete eta Nagusi mailatan jokatu da. Txapelketako partiduen aurretik, herriko umeak lagunarteko partidua jokatu dabez.

Lehenengo finalerdiak, hilaren 22an, 18:00etan jokatu da. Bertan, Kimu mailan, Dimako Etxahun Olazabalaga eta Larrabetzuko Eñaut Ortiz, Dimako Aimar Aldazabal eta Iurretako Aritz Moralesen kontra neurtuko dira. Kadeteetan, Zaratamoko Enok Iglesias eta Dimako Markel Egaña, Dimako Xabier Rekalde eta Orozkoko Aimar Amondoren kontra neurtuko dira. Nagusietan, Dimako Ziarrusta anaiak bata bestearen kontra jokatu dabe. Izan be, Igorreko Imanol Arresek eta Lur Ziarrustak, Algortako Inhar Ugarte eta Ekhi Ziarrusta izango dabez aurkari.

Bigarren finalerdiak hurrengo barikuan

Hilaren 29an, 16:30ean izango dabe zaleak bigarren finalerdi ikusteko hitzordua. Lehenengo umeen partidua egongo dira eta gero Kimu, Kadete eta Nagusi mailakoak ekingo deusie txapelketeari. Kimu mailan, Dimako Txomin Gorrotxategi eta Iker Rekaldek, Dimako Haimar Egaña eta Zeanuriko Igor Egileor izango dabez aurrean. Kadeteetan, Leza-

mako Oier Ormaetxe eta Zeanuriko Danel Beitia, Lemoako Ibon Kantero eta Zeanuriko Maren Emaldiren kontra neurtuko dira. Amaitzeko, Nagusiak mailako partiduan, Dimako Ander Eleznok eta Markinako Kepa Albizuk osotutako bikoa, eta Dimako Kimetz Zapikok eta Lemoako Oier Etxebarriak osotutako saiatuko dira finalerako pasea lortzean.

Finala urtailaren 5ean jokatu da eta bertan, Kolonbian Munduko Txapelketa jokatu daben pelotariak One Wall modalidadearen erakustaldia egingo dabe. Amaia Ariztegi eta Patri Espinar munduko txapelkunak egongo dira bertan.

Gabon giroan

Antolakuntzak, pelotazaleak partiduez Gabon giroan disfrutau dagiela gura dau eta neguko hotzari aurre egiteko, frontoia berotutako kainoiak ipiniko ditue. Gainera, zer jan eta zer edan be egongo da frontoian, pintxo eta edariakaz barra bat ipiniko dabe-eta.



Dimako frontoia.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA

ZIKLO-KROSA

Elle Andersonnek eta Wietse Bosmans-ek irabazi eben Igorreko Ziklo-krosa

Igorreko Ziklo-krosa irabazteaz gainera, Euskadi Basque Country Challengeko txapelak be jantzi ebezan Bosmans belgiarrak eta Anderson estadubatuarrak.

Erredakzioa

Igorreko Ziklo-kroseko Elite mailako gizonen podiuma, Aitor

Hernandezek eta Javier Ruiz de Larrinagak osatu eben. Andrazkoen podiuma, barriz, Aida Nuñok eta Lucia Gonzalezek.



Anderson goiko argazkian eta Bosmans behekoan helmugara sartzean.

Aurten proba bi baino ez ditu izan Euskadi Basque Country Challengeak. Zuiako proban bigarren egin eben Igorreko irabazle biak: Bosmans Ruiz de Larrinagaren atzetik sartu zan eta Andersonnek bigarren egin eban Aida Nuñoren atzetik. Baina Igorreko lasterketea erabakiorra izan zan eta Bosmans-ek eta Andersonek Challengea be irabazi eben.

Haizeak gogor jo eban Igorren abenduaren 10ean eta zirkuitua lupetzez beteta egoan. Bosmans errez nagusitu zan, Aitor Hernandez Ermuako ziklo-krosariari 49 segundo ateraz eta Ruiz de Larrinaga Zuian irabazle izandakoari minutu bat eta 11 segundo. Espainiako txapeldunak Ismael Estebanek laugarren egin eban eta Patrick Van Leeuwen-ek bosgarren.

Igaz ez zan Igorren izan Elle Anderson. Aida Nuñok irabazi eban eta Lucia Gonzalezek bigarren egin eban. Aurten, Andersoneri podiumeko mailarik altuena itxi eta maila bat gitxiagokaz konformau behar izan dira. Izan be, estadubatuarra errez nagusitu zan, Nuñori 53 segundo aterata.

Beste kategoriak

23 Azpikoen mailan, Sara Casola italiarra izan zan azkarrena andrazkoen artean Igorren eta Jofre Cullell gizonen artean. Gazte mailan, Filippo Fontana italiarrak irabazi eban. Kadeteetan, barriz, Roberto Gallok irabazi eban Igorreko proba mutiletan eta Anne de Pablok nesketan.

HALTEROFILIA

Hiru zidarrezko domina Lemoako Bruno Sotorentzat Espainiako Txapelketan

Erredakzioa

Bruno Soto Fernandez lemoaztarrak hiru zidarrezko domina lortu eban zemendiaren 25ean Madril jokotutako Espainiako Halterofilia Txapelketan Sub15 kategorian. Lemoaztarrak 13 urte baino ez ditu eta bere kategoriako gazteena izan zan.

Sotok arrankadan 75 kilo altxau eban; denpora bitan, 94. Hirugarren domina Total Olinpikoko sailkapenean be bigarren egin ebako irabazi eban. Hau, modalidade bietan egindako batuketea da eta 169 kilo horreek emon eutsien hirugarren zidarrezko domina.

Soto, Basaurin dagoan Urbi halterofilia klubean dago. Orain dala urte bete eta erdi inguru hasi zan kirol honetan, baina etxetik jaso dau

halterofiliarako zaletasuna. "Guraso biok egiten dogu kirol hau eta txikitatik ikusi dau" azaldu deutso BEGITURI Bruno Sotoren aitak.



Bruno Soto.

LASTO BOTATZE

Euskal Herriko Lasto Botatzeko hamabigarren txapela jantzi dau "Tubi"k

Erredakzioa

Abenduaren 3an jokotutako Euskal Herriko Lasto Botatzeko Txapelketan Jose Martin Bustinza "Tubi" izan zan txapelduna. Txapelketea antolatu dan hamabigarren edizioa izan da aurtengoa, eta hamaiki irabazi ditu Tubi dimoztarrak.

Bederatzi kirolari neurtu ziran

Dimako frontoian, baina hamabi kiloko lasto-fardoa altuera handienera jaurti ebana, Gipuzkoa ordezkatzeko joian Tubi izan zan, 6 m.ko markeagaz. Bigarren Lapurdiko Andde Arbenoitzek egin eban 5 m. eta 80 cm.ko markeagaz, eta hirugarrena Arabako Sergio Aldasoro (5m. 70 cm.) izan zan.



Tubi Euskal Herriko Lasto Botatzeko txapela jantzita.

ERRUGBIA

Arratiko Zekorrak Avia atzeko postuetan

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 29an hasi eban ligea Arratiko Zekorrak Avia errugbi taldeak, lehenengo partidu ha 7 eta 26 galdu eban Babyauto Zarautz taldearen kontra. Orduetik hona, 7 jardunaldi jokatu dira, baina AZ Aviak 6 partidu jokatu ditu, partidu bat atzeratu egin

dabelako. Horreetatik bi jardunalditan lortu dabe irabaztea: Funes taldearen kontrakoa eta AVK Bera Bera RT B taldearen kontrakoa. Abenduaren 2an jokatu eben bigarren bueltako lehen partidu, eta 7 eta 0 galdu eben Babyauto Zarautz taldearen kontra etxetik kanpo. Arratia atzenaurreko postuan dago 2 partidu irabazita.

ZIKLO-KROSA

Manu Quintanilla bigarren Berrizen eta Lezaman

Erredakzioa

Zemendian, Berriz eta Lezamako Master40 kategoriako ziklo-kros lasterketa bietan, bigarren egin eban Manu Quintanilla igorretarrak.

Berrizen, Josu Isasik irabazi eban, Quintanillari 41 segundo aterata, eta Iñigo Burgosek osatu eban podiuma. "Lupetza egon zan zirkuituan baina mehea zan eta bizikleteak aurrera egin ahal

izan eban" azaldu deutso BEGITURI Quintanillak. Dimako Fisik Banco Mediolanum taldeko Iñaki Parada zazpigarrena izan zan.

Hurrengo egunean Lezaman, barriro be Josu Isasi irabazle eta Quintanilla bigarren izan ziran. Andoni Jimenezek osatu eban podiuma. Lasterketa gogorra izan zan eta askotan aldatu behar izan eban bizikletea Quintanillak. Iñaki Paradak laugarren egin eban Lezaman.

ETNOGRAFIA

XX. mende hasikerako historian murgildutako aukerea izango da Artaungo Antzasti baserrian

Euskaldunon etxea izena dauka Artaun (Dima) auzuneko Antzasti baserrian zabalduko daben "esperientzia etnografikoak". Cristina eta Elena Amezaga soziologoak, etxearen bitartez, industrializazio garaian, XIX. gizaldiko amaieran eta XX.eko hasieran batez be, gertatutako gizarte aldaketa kontau gura dabe proiektu honegaz.

Erredakzioa

Gizarte tradizionaletik modernizadara gertatutako aldaketa, baserria eta uriko etxea -Artaungo eta Bilboko- erakutsiz, hain zuzen be. Arratiako tranbiak lotzean ebazan mutur bi horreek, mundu biak. Eta bere lekutxo be badauka tranbiak Euskaldunon etxean.

Amezaga ahiztak 2018 urte hasieran zabaldu gura dabena ez da ohiko museo bat. Ez dira pieza soilak horma baten agertuko, tesuinguru baten baino. Izan be, sasoi bateko uriko edo baserriko sukalde, logela, sala eta komun osoak ikusi ahal izango dira han, leku bakoitzean egoten ziran elementu guztiak. "Giroa harrapatu gura izan dogu" dinoe. Horregaitik, herri zein uri giroko bizilekuan egozan gela guztiak errepresentatu ditue Antzasti baserrian. "Ezzenalekuak sortu gura izan doguz, jentea giro horretan murgildu daiten". Formazinoz soziologoak izateaz gainera, dekorazino be ikasi dabe Amezagatarrak eta gizarte eta bizimodu aldaketa sakon haren espilu ziran espazioak ekarri dabez baserri. Holan, sano erreza da denporan atzera egitea. Etxe honetan, ETBko *Baskoniako historia bat* saileko pasarte batzuk grabau dira eta *Gernika* pelikularako be Amezagatarrak bildutako gauzak alokatu ebezan egileak filma girotzeko.

Etxea gizarte eta bizimoduaren espilu

Antzasti baserria leku pribilegiaduan dago: Artaunen, Urkiolako Parke Naturalaren eta Gorbeaiko Parke Naturalaren mugan, Arratia bailaran. Artaun auzunea bera be "oso benetako da. Mantendutena dauz ermitea, bolalekua, eskola zaharrak, ferralekua... eta baserri mota desbardinak dagoz, arkitektura mota desbardinak dagoz" dino Elena Amezagak. Baserria, arratiar plantako baserria da; hiru plantakoa. Behean kortea dauka, gainera bizilekua eta goian kamarea, uzta gordeteko.

Hamar lagunekin taldeetan antolatuko dira bisitak. Kortan batuko da jentea eta gero taldeka egingo dabe bisita gidatua. Beheko espazioan baserri eta uriko sukalde batera dagoz. Goian, barriz bananduta dagoz giro biak. Baina "bi munduen arteko gure ipuinaren haria Arratiako tranbia da. Arratiako tranbia zan industrializazioaren frutu eta ha zan uria eta herria lotzean ebana". Hori dala-eta, bisitearen hasieran bisitariak orduko tranbiaren biak erakusten dauan proiektino bat ikusiko dabe. Antxinako irudiak dira eta testua eta abotsa Estepan Aldamiz ETBko kazetariak ipini dauz. Baserriko geletan be, geletan bertan grabatutako fikziozko proiektinoak emongo ditue, jentea sasoi haretako erropakaz eta gelako

gauzak erabilten ikusi ahal izateko.

XX. mendi hasikerako bizimodu eta gizarte

Sasoi haretako egunerokotasunean, hotza izaten zala arazorik larrinetekoa dinoe soziologo biak. Horregaitik, etxeok behereko suaren inguruan emoten eben denpora gehiena. "Oheratzerakoan barruko jantziak kendu barik eta hurrengo goizean horreen gainera jantzen ziran" bai baserriko gizarte tradizionalan, bai uriko modernizadetan.

Baserrian, umeen gelan, ohe baten bospasei umek egin eikien lo. "Umeak ibili orduko hurreraten ziran lan mundura" dino Elena Amezagak. Izan be, "baserri baten ofizio asko egiten ziran, kontua zalako ahalik eta autosufizienteena izatea". Olgetari jagokonean, Bizkaian, auzune gehienetan, bolalekuak egoten ziran eta baserri batzuetan be bai. Horrezaz gainera, pelotea, zesta, tabak, tronpak, albokea... izaten eben olgetako.

XIX. Mendeko deskubrimeturik inportanteenetakoa higiea izan zan eta horri dedikatutako gela bat be badago Euskaldunon etxean. Sasoi haretan konturatu ziran zenbat eta garbiago egon, orduan eta gehiago bizi zirala. Eta herrietan botikarioa agertu zan. Uriko eraginez herrira ekarritako mundua izan zan ha. Horrek aldaketak izan ebazan gauza askotan, barruko erropetan esate baterako. Erropok txikiagoak eta finagoak egin ziran sarriago garbitu ahal izateko.

Modernizadaren mundu barria, uriko etxeak errepresentetan dau. "Industrializazioa iraultza zientifiko batez hasi zan. Zientzia modernoak ekarri eban industrializazioa, eta aro honetan zentzia guztiak loratu egin ziran" dino Elena Amezagak. Horregaitik, zientziari be txoko bat eskeini deusie. Orduan sortu ziran biak plazer moduan, kotxea, mapak, argazki makinak eta abar, eta euren lekutxo daukie Antzasti baserrian.

Horrek guztiak gizarte aldaketa sakona ekarri eban. "Mundu honetan senitarteko alkarbizitza eta alkarlana desagertu egiten dira. Andrak eta gizonak mundu desbardin bitan biziko dira orain. Gizonen esku geratu zan dana: zientzia, industria, enpresea, meategiak, gerrea, politikea... modernizadako gai nagusiak" dino Elena Amezagak.

Andrak gai nagusietatik aparte geratu ziran eta lanpostu gixitan egin eikien lan. Inportanteenetakoa, jostun eta kapelagile izan zan. Bilbon

milaka egozan, eta eurak egindako hainbat soineko jaso dabez Amezagatarrak.

Parisetik eta Londonetik ekarritako aldizkariak, andra "modu bat" erakusten eben, eta modu hori ez zan bakarrik estetiko, andra on bat zelangoa izan behar zan be ezartzen zan han. "Andrak batez be Frantzia aldera begiratzen eben, dotoreziaren eredu zan Parisera. Gizonak batez be Ingalaterra, industrializa-

zinora" dino Cristina Amezagak.

Euskaldunon etxean erakusten diran gauza guztiak, Bilbon eta Arratiako batutakoak dira. Gu, "mundu bi horreen ondorio gara" dinoe Antzastiok, gizarte tradizionala eta modernizadaren ondorio, hain zuzen be.

Prestaketa lanetako 5 urteotan, jente askok lagundu dau, Euskal Museoko Amaia Mujikak eta Alberto Santana historialariak, esate baterako.



Andra askok jardun eben Bilbon jostun eta kapelagile beharretan.

KONTZERTUA**Kontzertuak Kiñu Gaztetxean****Illart Gumuzio**

Abenduaren 23an, Igorreko Kiñu Gaztetxean Glaukoma taldearen eta Little Martin Selektahen kontzertua egongo da. Jaialdiak, gauko 22:00etan zabalduko ditu ateak eta ordu erdi beranduago hasiko da. Sei euro balio ditu sarrereak eta aurre-salmenta musikaze.net webgunean eta Igorreko Axular Herriko Taberna, Kukuma taberna, Gau Lora akeitegia eta Txaparro jatetxean izan dan arren hasieran saldulekuak, sarrereak arin saldu diranez, momentu honetan musikaze.net-en eta Axular Herriko

Taberna bakarrik erosi daitezke.

Glaukoma 2010ean Tolosan sortutako Rap-reggae taldea da eta *Kalima* izeneko bere laugarren diskoa aurkezten etorriko da Igorrera. Euren diskografia *Vol I* (2012), *Vol II* (2013) eta *Bad Sound System* egindako *Sua zaintzen* (2015) lanak osotuten dabe. Taldeko partaideak jagokienean, Juantxo Arakama abotsaren gidaritzapean jarduten dabe Iker Pando eta Jokin Albisua gitarrak, Asier Arandia bajuak eta Pablo Rubio bateriak.

Little Martin Selektahen ostera, Dancehall, Reggae, Jungle doinuak alaituko dau gaua.

IGORRE | KIÑU GZTX | 22:00

6€

GLAU
KOMA
KALIMA

Little Martin
SELEKTAH



Bilboko etxeetan gizon eta andren espazioak bananduten hasi ziran.

JOKOA

Urtailean beste *Scape Room* joko bat abiatuko dabe Kiñu Gaztetxean

Ismael Pereira "Isma"k, Kiñu Gaztetxearen babes eta laguntzeagaz, "Johnnyn logela" *Scape Room* joko fisiko-mentala antolatu eban urri bigarrean. Asmoa, astegioen baten jardutea zan, baina arrakasta ikusita, joko honetan parte hartzeako aukerea, abendura arte luzatu da. Eta urtailean beste *Scape Room* bat antolatu dau Ismak, "Euskararen laborategia" izenekoa.

Erredakzinoa

"Zer egingo zeunke gela baten bahituta egon ezker?" Plante-

amentu horretatik abiatuta, gelatik 60 minutu baino lehenago ateratea da jokalarien helburua. Horretarako, gelan planteetan



Talde bat *Scape Room* jokoan.

diran enigma, pista, matematika problema, asmakizun eta abarrak asmatzea da kontua gela horretatik urteteko. "Abenturazko jolas fisiko-mentala da eta talde lana dauka helburu" azaldu deutso BEGITURI Ismael Pereira antolatzaileak.

Hamabost urtetik gorakoentzako joko

Scape Room ez da umeentzako joko. Parte hartzaileak "bahituta" egoten dira: "eskuak lotuta, lurrean belauniko, begiak taputa... Horregaitik da 15 urtetik gorakoentzat Ismaren esanetan. Jokoa Japonian 2008an sortu zala dino eta Ameriketako enpresak gero eta gehiago erabilten dabela, beharginak daukiezan rolak jakiteko, nor dan liderra, nok entzuten dituan besteen proposamenak eta nok egiten dau behar bakarka, esate baterako.

Igorreko Kiñu Gaztetxean, barikuetatik domeketara "parau barrik" dabiz joko honeguz eta sano perfil desbardinatoko jentek hartu dau parte. "Zapatu baten 5 talde euki genduzan eta talde baten batz besteko adina 15 urtekoa zan, eta beste baten 40 urtekoa" dino antolatzaileak. Jokoa lehiaketea da. Izan be, taldeak 60 minututan urteteko gai dan ala ez erakutsi behar dau eta.

Abenduaren amaieran, "Johnnyn logela" itxiko da eta "Euskararen laborategia" zabalduko. Kiñu Scape Facebook-ean edo 676 247 784 telefonoan emon daiteke izena bertan parte hartzeako.

ANTZEZLANA

The Primitives umorezko musikala Lasarte Aretoan

Erredakzinoa

Yllanak eta Primita Bros-ek, *The Primitives* ikuskizuna eskeinitiko dabe abenduaren 28an, 20:30ean, Igorreko Lasarte Aretoan.

Musika estilo desbardinak entzun ahal izango dira musikaldibertigarri honetan; zinemaren historian hain ezagunak diran *Indiana Jones*, *Star Wars*, *Mision imposible*, *E.T.* edo *Braveheart* filmetako edo *Juego de tronos* teleaiko abestiak, esate baterako,



eta opereagaz hartuko dau ikuskizunak puntu gorena.

Yllanaren ikuskizun guztietan legez, publikoak garrantzia handia izango dau, *sketch* barregarrietan batez be.

BERTSOLARITZEA

Bertsolariak Lasarte Aretoan

Erredakzinoa

Abenduaren 27an, arrastiko 19:00etan, Amets Arzallus, Nerea Ibarzabal, Oihana Iguaran eta Etxahun Lekue bertsolariak egongo dira Igorreko Lasarte Aretoan, Arratiako Bertso Eskoleak antolatutako *Irudibertsotan* bertso eta marrazki ikuskizuna eskeintzeko.

Marrazkigilea Igor Menika izango da eta gai jartzaile lanetan jardungo dauana sorpresea izango da.

Bertso eta marrazki ikuskizunetan, gai jartzaileak gaia emon eta bertsolariak kantau ahala, irudia egiten dau marrazkigileak. Lan horretan jardungo dau Igor Menika bertsolari arantzazutarrak, beste laurak bertsoak bota bitartean. Ikuskizunak bat-bateko arte plastikoa eta literatura buztartzen ditu.

Arzallus, Ibarzabal, Iguaran eta Lekuek 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian hartu dabe parte. Finalean Amets Arzallus bakarrik egon zan, 2013ko Txapelketa Nagusiko txapelduna da eta.

DUNBA

Arteako 3. Zikloko geologoak

Ikastola Arratia HI-ko ikasleak

Hiruhilabete honetan "Hatxak, mineralak eta harri bitxiak" proiektua landu dogu gure ikastetxean. Hasieran, proiektuagaz hasi baino lehen, galdera asko planteau genduzan, adibidez: Zer da hatxa? Zer da minerala? Zer da harri bitxia? Zelan sortzean dira? Zeintzuk dira Euskal Herriko mineralak? Non dagoz? Zertarako erabilten dira? Zer da koltana eta zertarako erabilten da?

Galdera honeen erantzuna bilatzeko, gaia hornidu genduan, hau da, liburuak, mineralak topau genduzan, bideoak ikusi... Eta holan gure proiektuari hasikerea emon geuntsan eta guztiok lanean hasi ginan. Hiru hizkuntzatan lan egin dogu, euskeraz, gaztelaniaz eta ingelesez, informazio desbardinak bilduz eta



testuak ekoiztuz.

Ekintza desbardinak egin doguz. Adibidez, zemendiaren 29an gure gelara Zeanuriko Gotzon Idirin etorri zan. Bera, gaur egun sushiltzailea da baina geologia ikasketak eginda ditu. Zalantza asko argitu eta hainbat azalpen barri emon euskuzan: kristalizazioa, mineralak, hatxak zelan sortzean



diran... Hemendik Gotzon, gure eskerrik beroenak zure laguntasunagaitik!

Zemendian be Gallartara eta La Arboledara joan ginan, eta bertan hainbat mineral (burdin mineralak) topau genduzan: limonita, siderita, goethita... Bertako meategiak ikusi, La Arboledako lakuak bisitau, amonite baten fosilaren

erreplika bat egin genduan... Egia esateko, egun polita pasau genduan.

Baina zertarako egingo dogu hau? Ba... mineralen museo bat antolatuko dogulako. Bai, ondo entzun dozue! Abenduaren 21ean, gure museoa, Mineralium museoa, zabalduko dogu eta gure proiektuaren aurkezpe-

na egingo dogu. Bertan, gelan daukaguzan mineral eta hatxak egongo dira. Badakizue, animetan bazarie, Arteako eskolako goiko pisuan etxoten zaituegu!



AGENDEA

ABENDUAK 18 ARRATIA

Urtailearen 3 eta 4an Zestoan egingo diran negulekueetan parte hartzeako izena emoteko atzen eguna. Igorreko Kultur Etxean edo Areatza, Bedia, Dima edo Lemoako Gaztelekuetan. 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzat.

AREATZA

19:15etik 20:15era, AKKBn babesle edo bazkide izateko eta mendian federatzeko aukerea Lamino Mendi Klubean, eta BOS eta Bilboko Koral Elkartearen hilaren 22ko Gabonetako kontzertua ikustera joateko izen emotea.

DIMA

Hilaren 29ra arte, udal ikastaroetan izena emoteko epea zabalik.

IGORRE

17:00etatik 19:00etara, urtailearen 22ra arte, martiaren 3an sagardotegira egingo dan urtekerara joateko izen emotea. Gazteria Zerbitzuko bulegoan, astelehen, eguazten eta barikuetan. Edo 688 898 765 telefonon. 18tik 30era artekoentzat.

18:30ean, Arratia Musika Eskolearen ikuskizuna *Musikatu bizitza eta urte barri on!* Lasarte Aretan.

ABENDUAK 19 BEDIA

19:00etan, Arratiako Musika Eskolearen kontzertua Bedialeko eleizan.

IGORRE

Jubiladuen alkarteak antolatuta, urte amaierako bazkaria.

LEMOA

19:30ean, EAJ-PNVk antolatuta, *Arratiarrakaz berbetan* zikloan, Pedro Azpiazu Ogasun eta Ekonomia sailburuaren berbaldia. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

ABENDUAK 21 DIMA

18:00etan, Dimako Udalak antolatuta, Hezkuntza tailerra, Giza trebetasunak. Abaroa aretoan.

ABENDUAK 22 IGORRE

21:00etan, Houston Pub-en *Zure ondo tabernan* diskoaren aurkezpena Lasarte Aretan.

ZEBERIO

18:00etan, *Hor konpon Mari Anton* antzezlanaren udaletxean.

20:00etan, Flamenko pintxo saioa Ermitabarrin.

ABENDUAK 23 IGORRE

Jubiladuen alkarteak antolatuta, mendi ibilaldia eta bazkaria. Igorre-Dima-Artaun-Biteriño-Artan-San Kristobal-Igorre.

22:00etan, Glaukoma eta Little Martin Selektah taldeen kontzertua Kiñu Gaztetxean.

ABENDUAK 24 ARRATIA

Olentzero. Ospakizunak Arratiako herrietan.

Ikusi 10., 12. eta 13. orrialdeak.

ABENDUAK 25 LEMOA

Ganzabal Mendi Taldearen urtekerea. Urkiola-Anboto (1.331 m.).

ABENDUAK 26 ARANTZAZU

11:00etan, umeen esku pelota partiduak. Gero desafioa lau t'erdian. Agirre-Arrese. Frontoian.

ZEBERIO

Etxazo auzuneko jaiak. 12:00etan, mezea San Esteban ermitan, herri kirolak, txalatorta eta abar.

ABENDUAK 27 AREATZA

12:00etan, AKKBk antolatuta, Tor Magoaren *Hator magiara* ikuskizuna. Ludotekan.

19:30ean, AKKBk antolatuta, Coro Rossini

abesbatzaren kontzertua eleizan. Ostean mokadutxoak AKKBk antolatuta.

IGORRE

19:00etan, Arratiako Bertso Eskoleak antolatuta, Irudibertsotan. Bertsolariak: Etxahun Lekue, Nerea Ibarzabal, Amets Arzallus eta Oihana Iguaran. Marraskilaria: Igor Menika. Lasarte Aretan.

DIMA

18:00etan, Dimako Gurasoen Elkarteak antolatuta, ume eta familien irakurle kluba Mireia Delgadoren eskutik liburutegian.

LEMOA

19:30ean, *Donbass gerra Europako bihotzean* dokumentala eta barriketaldia EH Donbass Elkartasun Komiteko kideakaz Karabie Gaztetxean.

ABENDUAK 28 AREATZA

19:00etan, Toponimia lanaren aurkezpena. Labayruko Adolfo Arejaren eskutik. Udaletxeko Aretu Nagusian.

IGORRE

20:30ean, Yllana taldearen nagusientzako *Primitals* testu bako antzezlanaren. Lasarte Aretan.

LEMOA

20:00etan, Anodino Teatro konpainiaren *Erbeste edo saihe baten aldarrikapenak* antzezlanaren Karabie Gaztetxean. Korto Express Film Laburren Lehiaketaren hasikerea.

ZEANURI

18:30ean, Jakoba Errekondoren *Landareak lantzen* agendaren aurkezpena eta konsultategia Kultur Etxean.

ZEBERIO

19:00etan, Ipuin kontalaria, *Euskal mitologia ezagutzen*. Batzokian.

ABENDUAK 29 AREATZA

19:00etan, Eresoina taldearen kalejireta tabernaz taberna.

BEDIA

16:00etan, urtekerea Arriaga Antzokira *Izar-Estrella* ikuskizuna ikusteko. 7 urtetik gorakoentzat.

ZEANURI

19:00etan, *Expect the unexpected* audiobisuala

eta berbaldia Kultur Etxean.

20:30ean, Sorry Street Band-en kontzertua Jubiladuen tabernan.

ZEBERIO

12:00etan, San Tomas Zaharra ermitan mezea eta barauskarria.

18:00etan, bola jaurtiketara; 20:30ean, taloak eta txokolata Ermitabarrin.

ABENDUAK 30 AREATZA

19:00etan, Areatzako Bandaren kontzertua. Eleizan.

ZEANURI

19:00etan, Kukai jantza taldearen *Gelajauziak* emonaldia frontoian.

ABENDUAK 31 AREATZA

Lamino Kirol Klubak mendi urtekerea. Oketa-Siskiño.

IGORRE

VIII. San Silbestre lasterketa. 11:00etan, izena emon eta 11:30ean urtekerea. Mozorrotuta joan.

LEMOA

12:30ean, Eneko Zamalloa Memoriala. Lemoako VII. Gabonetako Lasterketa. Elizondon.

18:30ean, euskal presoen eskubideen aldeko manifestazioa. Intzuntzako plaza gorritik hasita.

ZEBERIO

10:00etan, Austarri Mendi Taldeak antolatuta mendi urtekerea Tontorrandira. Plazan.

ZEANURI

11:00etatik aurrera, San Silbestre lasterketa. Ondoren saldea, taloa... Atoan eta Joko Alai alkartearen laguntzeagaz.

URTAILAK 2 BEDIA

10:30etik 13:30era, ludotekea zabalik. Hilaren 5era arte.

ZEANURI

16:30ean, bizikleta ginkana Arratiako Ziklista Elkarte eta Atoan alkarteagaz; 18:30ean, berbaldia Igor Anton, Mikel Zarrabeitia eta Murias taldeko txirindulariren bategaz Kultur Etxean.



Argazkia: Uriola.eus.

Umeen transexualidadearen gaineko berbaldia Zeberion

Xabier Madariaga EITBko kazetari zeberioztarra eta Mikele Grande ETBko Ur handitan saioan bere esperientzia azaldu eban Uharteko (Nafarroa) nerabe transexuala Zeberion egongo dira, umezaroan zelan biziten dan transexualidadearen gainean berba egiteko. Hitzordua, abenduaren 30ean, 18:00etan, Zeberioko udaletxean da, eta "Sexua, umeen erabagia. Transexualidadea umeen artean" izeneko berbaldia emongo dabe.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

EGURRA SALTZEAN DA

Pago egurra saltzean da sua egiteko. 45€/tona. Gura izan ezker neurri zatituteko aukerea dago. Informazio gehiago 688 602 516 telefonon.

DANERIK

LAN ESKEINTZA

Lan eroso eta ondo ordaindutakoa eskeintzen dogu. Telekomunikazio enpresa baten, autonomo edo kolaboratzaileen bila gabiltz, ordutegi barik eta komisino handiak pagauta. Deitu 662 568 707 telefonon.

LAN ESKEINTZA

Estetizista bat behar da Igorreko estetika zentro baten, lanaldi erdirako. Gitienez urte biko esperientzia eskatzen da. Interesdunak bialdu curriculum eta argazkia haizenatur@gmail.com helbidera.

TRUKEA

Arratian (Areatza) bizi dan neska alemaniar/danimarkarrak beragaz

ingelesez edo alemanieraz praktiketako aukerea eskeintzen dau, gaztelania praktiketara aukerearen truke. Interesdunak 634 445 924 (Sophie) telefonora deitu.

GARAJE PARTZELA ALOKAIRUAN

Zeanurin, Ibarretan garaje partzela bat alokatzen da. Interesdunak deitu 94 673 92 96 telefonora.

ALOKAIRUA

Usansolon fisioterapia zentroa alokatzen da. Behar dan guztiagaz horniduta, funtzionamentuan eta prezio interesgarrian. Telefonoa 690 107 156.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *The Primitals* antzezlenerako.

Iratxe Olabarri (Igorre)
Janire Aierdi (Areatza)



2 Kiñu Gaztetxeak emondako sarrera bi Glaukoma taldearen kontzerturako.

Joseba Olibares (Zeanuri)




g Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 15 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Hustu. 2.- Gauza bat hemetik hara garraiatu. Konsontantea. 3.- Suberte. Birritan, umeen berbetan, min. 4.- Bokala. Letra bat. Zenbaki bat. 5.- Zarata barik. Uranioa. 6.- Berba-alkarketan, adar. Oinarritzko lau odol taldeetako bat. 7.- Egiptoko eguzkiaren jainkoa. Kontau. 8.- Letra bat. Maite. 9.- Poztu.

GOITIK BEHERA

1.- Umel. Kutxa. 2.- Bobidoen familiako ugaztun. Kretako mendia. Konsonantea. 3.- Kandela. Emea ez dana. 4.- Hegazti haragijale. Bat erromatar. Ezker Mobimentu Abertzalea. 5.- India. Ezkutu. 6.- Letra bat. Umeen berbetan, mosua. Pasau dan gaua. 7.- Eskukatu. Persona izenordain indartua.



Topau umeen olgeta parke baten egon leitekezan zazpi gauzaren izenak.



AKI MI KO

Iman Olatu



umeen moda
sew
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnua, 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIOK, NEUMATIKOK ETZ ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA
GATY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, beheha
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
KOSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRATIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, beheha - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnua: 94 673 61 25

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: urratia@euskalnet.net



Areatzako Bainuetxea



www.hotelbalnearioareatza.com

Oparia topetan Olentzero egunerako?

Urte honetan, relax-a Areatzan

Masajeak, zirkuitu termalak,
bonu gastronomikoak, hidromasaje bikotxak,
estalkiak, estetikea, fisioterapia...

28€-tik aurrera

info@hotelbalnearioareatza.com - 946572705